

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ERABAKIA, 2024ko otsailaren 6koa, HABEren zuzendari nagusiarena, HABEk eskatutako kanpoko lankidetzengatik zerbitzu-emaileei ordaintzeko irizpideak eta tarifak ezartzen dituena.

Kontuan izanda HABEk bere eginkizunak betetzeko erakundetik kanpoko lankidetzak eskatu behar izaten dituela eta lankidetzak hauek ordaintzeko irizpideak eta tarifak zehaztu behar direla.

Kontuan izanda, 2022ko abenduaren 26ean onartutako ebazpenean ezarritako zerbitzu eta tarifez gain, beste kontzeptu berri batzuk gehitzea komeni dela.

Kontuan izanda zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren 23. artikulua dioena,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- HABEk behar dituen kanpo-lankidetzetarako indarrean dagoen 2022ko urtarrilaren 26ko ebazpenaren eranskinean ageri diren zerbitzu osagarriak gehitzea eta zerbitzu-emaileei begira ordainketa-irizpide eta tarifa berriak ezartzea.

Bigarrena.- Eranskineko tarifak aplikatu ezin diren kasuetan, Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 310 artikuluan ezarritako prozedura erabiltzea: irakaskuntza-jarduerak kontratatzeko araubidea.

Donostia, 2024ko otsailaren 6koa.

HABEren zuzendari nagusia,
Jokin Azkue Arrastoa.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

11.- HEOC-EKO MAILEN EGIAZTAPENAK

6.- Azterketa idatziak zuzentzeagatik 27,10 euro/orduko

C2 maila: 60 min. (idazlana) + 30 min (bitartekotza) = 90 min. 40,65 euro

8.- Ebaluatzaile ikerleak hirugarren zuzenketa egiteagatik 35,60 euro/orduko

C2 maila:

- ohiko idazlana: 40 min. 23,73 euro

- bitartekotza: 20 min. 11,86 euro

10.- Tutoretza-lanak (orduko, joan-etorriak barne) 35,30 euro/orduko

10.1. Bateratze-saioetarako bilera: 3 ordu (*)

10.4. Tutoreek aurrez aurreko saioa prestatzea: 2 ordu 70,60 euro

10.5. Tutoreek aurrez aurreko saioen ondorengo txostena prestatzea: 2 ordu 70,60 euro